

GIDA

NORK BERE BURUAREN PARTE HARTZEA



matia
gogoz bizi



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERONTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTI POLITIKETANO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Matia Fundazioaren proiektua. Laguntzailea: Teresa Martínez

Egile nagusia:

Teresa Martínez Rodríguez

Idazketa laguntzaileak:

Pura Díaz-Veiga eta Maria Francesca Cerdó

Dokumentu honetan agertzen diren adibideak eta esperientziak Fraisoro eta Argixao zentroetako profesionalen taldeak emandakoak dira:

Jaione Artieda, Arantza Ercibengoa, Ainhoa Manso, Virginia Oliván, Oihana Etxaniz, Ainara Usandizaga, Isabel Carrasco, Irene Bareño, Sonia Rodríguez eta Jone Eguren.

Praktikarako baliabideak maketazean eta eduki grafikoa hautatzen:

Gorka Alías, Juan Carlos Mejía eta Irati Arruabarrena.

AURKIBIDEA

1. BIZITZA ESANGURATSUA SUSTATUZ ZAINTEA	7
2. PARTE HARTZEKO ERA EZBERDINAK	9
3. PARTE HARTZEKO SAIOAK: ZERGATIK, ZERTARAKO ETA NORK	11
4. PERTSONAK ARRETA- ETA BIZITZA-PLANEAN PARTE HARTZEN LAGUNTZEKO BOST URRATS	13
5. LAGUNTZA ETA AKORDIOEN BERRIKUSPENA	28

1.

BIZITZA ESANGURATSUA SUSTATUZ ZAINTZEA



Pertsonak bere kabuz egin ezin dituen eguneroko jardueretan laguntzea baino zerbait gehiago da pertsona ardatz duen arretaren bidez zaintzea.


Laguntza pertsonalizatuak ematea da, pertsonak aukera izan dezaten **bizitza zentzuz** garatzen eta **gozatzen** jarraitzeko, laguntza ugari behar dituztenean ere. Bizitza bat non haien balioak, lehentasunak eta identitatea errespetatuko baitira.

Pertsonak narriadura kognitibo aurreratua duenean, bizitza esanguratsua da **haren identitatea babesten duten errutinak eta elementuak mantentzea**, baita une oro ahalik eta ongizaterik onena bilatzea ere.

Zentzua duen bizitza sustatuz ZAINTZEAK hau dakar:



- **Pertsonari benetan axola zaiona kontuan hartzen duten** laguntzak ematea eta arretak antolatzea, eta bermatzea aukerak dituela hautatzeko eta **bere identitate pertsonalarekin bat datorren eran bizitzen jarraitzeko.**



- **Konfiantzan oinarritutako afektu harremana eta ongizatea ahalbidetzen duena** sortzeko aukera ematen duten uneak eta aukerak bilatzea.



Laguntzen dugunok ahalbidetu dezakegu hori. Gure begirada, gure jarrera, gure jokabidea pertsonak hautatzeko **aukerak sortzea**, haiekin dugun harreman mota funtsezkoak dira. Horrez gainera, arreta taldearen eta zentroen malgutasuna ere oso garrantzitsua da.

2.

PARTE HARTZEKO ERA EZBERDINAK

Adinekoek **parte hartu behar dute beren arretaren nondik norakoa zehazten**, beren egunerokoa antolatzen, horrek zentzua izan dezan. Alderdi hori pertsona ardatz duen arretaren erdigunea da, alderdi definitzailea.



Ezin dugu ahaztu pertsonak **ahalduntzea**, haien bizitzaren gaineko boterea ematea, **prozesu bat dela**. Askorentzat zerbait berria izan daiteke, edo, mendekotasun egoera dela eta, ohitu egin diren zerbait. Ahalduntzea jardunaren bidez baino ezin da lortu; ez da eskaini behar den zerbait, besterik gabe. Garatu eta sustatu egin behar da, erritmo eta estrategia erabat pertsonalizatuak erabilia.

Zalantzarik gabe, egunerokoak aukera ugari eskaintzen ditu pertsonak parte hartzeko eta erabakiak hartzeko aukera izan dezaten. **Galdetzea, aukerak ematea, aukerak zabaltzea edo bakoitzaren aukera garrantzitsuenez ohartzea** estrategia egokiak dira eguneroko zaintzan pertsonak parte har dezaten eta haien arreta eta bizitza nolakoa izatea nahi duten erabaki dezaten.

Narriadura kognitiboa edo dementzia dutenek ere parte hartu ahal eta behar dute beren arretan, laguntzarekin eta, inoiz, beste batzuen (senide edo lagun minen) ordezkartzaren bidez. Gainera, pertsona horiek parte hartzea lortzeko, **zenbait estrategia informal erabil daitezke egunerokoan**.

Kasu batzuetan, pertsona horientzat, parte hartzea izan daiteke haien unitateetan antolatzen diren jarduera esanguratsuetan **egotea** besterik gabe. **Profesionalok arreta berezia izan behar dugu** pertsona horiei dagokienez, eta jardueretan parte har dezaten sustatu. Haiek ez digute eskatuko parte hartzeko; horregatik oso garrantzitsua da gonbidatzea eta lagun egitea, baldin badakigu proposatutako jardueraz gozatu egingo dutela.



Bizikidetza unitateetan hasi ginenean, ondo pasatzen genuen sukaldean errezeta errazak egiten. Batzuek arrautzak irabiatzen zituzten; beste batzuek barazkiak zuritzen zituzten... Poz-pozik geunden.

Hala ere, egun batean ikusi genuen komunikatzeko edo mugitzeko arazo gehien zituzten pertsonak jardueratik kanpo zeudela. Urrun geratzen ziren. Haietako batzuk, bakarrik. Ez genituen gonbidatu. Handik aurrera, arreta gehien eskaintzen diegunak dira horiek; zeregin errazak egiteko eskatzen diegu: egiten duguna usaintzea edo dastatzea, edo gurekin batera egotea, besterik gabe, solasaldiak eta barreak partekatze.

Komunikaziorako mugak dituzten pertsonak bizikidetza unitateko bizitzan parte hartzea sustatzeko bideetako bat honako hau izan daiteke: otorduak prestatzeko lanetan, jai eta ospakizunetan, kanpoalderako irteera eta paseoetan, landareak zaintzeko lanetan... egotea eta parte hartzea.




3.

PARTE HARTZEKO SAIOAK: ZERGATIK, ZERTARAKO ETA NORK

Zergatik bildu eta parte hartze formalerako gune bat eskaini adinekoei eta haien familiei?

Autodeterminazioak egunerokoan behar duen funtsezko estimulua osatzeko, komeni da **parte hartzeko gune formalak antolatzea eta planifikatzea.**



Oso garrantzitsuak dira, era berean, adinekoak, bere familiak eta zenbait profesionalek **elkartzeko eta hitz egiteko** aukera izango duten bilerak edo saioak. Lehenik eta behin, gune formal horiek oso baliagarriak direlako **elkartzea errazteko eta parte hartzea bideratzeko**. Bigarrenik, adinekoen, familien eta profesionalen arteko **konfiantzazko loturak** indartzen laguntzen dute, entzuteari garrantzia emanez elkarrenganako aitortpena eta errespetua bermatzen dituen esparru batean.

Pertsona hobeto bizi dadin, berak jaso behar duen arretak nolakoa izan behar duen adierazteko iritziak eta proposamenak trukatzeko gune formal eksklusibo bat eskaintzeak, gaitasun operatiboa izateaz gainera, **balio sinboliko oso garrantzitsua du, mezu argi bat eman eta sendotzen baitu: adinekoek eragile aktiboak izan ahal eta behar dutela beren bizitzan eta beren arreta prozesuan.**

Zertarako bildu?



● Pertsonaren eta haren familiaren iritzia eta sentimendua ezagutzeko, eguneroko arretan garrantzitsua denari dagokionez.

● Zaintzei buruzko informazioa trukatzeko.



● Unitateko egunerokoari buruzko akordioak lortzeko.

● Afektuzko eta konfiantzazko loturak indartzeko, eta, hala, elkarlaneko harreman bat sustatzeko.

Nork parte hartu behar du saio horietan?


Talde txikia eta eragingarria izan behar du, harremanak giro hurbilean garatzeko aukera ematen duena. Komeni da guztira lau edo bost partaide baino gehiago ez izatea, pertsona bera sartuta.

Hau **izan daiteke osaeretako** bat:



1. Zaintzak jasotzen dituen pertsona.

2. Familia, baldin eta pertsonak berak onartzen badu eta narriadura kognitiboa edo demenzia badu. Egokiena senide bat edo bi egotea da.



3. Erreferentziako profesionala. Haren parte hartzea ezinbestekoa da.

4. Pertsonarentzat garrantzitsua den profesionalen bat.

Saioan parte hartzen dutenek ondo ezagutu behar dute pertsona, eta euskarri garrantzitsua izan haren helburu pertsonalak eta bizi kalitatea lortzeko. Ez da ezinbestekoa beti berberak izatea.

Argi izan behar dugu gune honek ez duela inolako zerikusirik pertsonaren ebaluazioa egiteko edo jarduketak koordinatzeko egiten diren diziplina arteko bilerekin. Saio hauek ez dira bilera horien ordezkioak, baina, zalantzarik gabe, bietan lantzen dena ezaguna izan eta koordinatuta egon behar du.

4.

PERTSONAK ARRETA- ETA BIZITZA-PLANEAN PARTE HARTZEN LAGUNTZEKO BOST URRATS

Parte hartzeko prozesu hau zaindu egin behar da; ezin da egin presaka edo edonola.


Prozesuan hau bermatu behar da:



Parte hartzen dutenek nolabaiteko **prestakuntza izatea aurretiaz**. Oso garrantzitsua da topaketa hauetan parte hartzen dutenek ondo jakitea zergatik, zertarako eta nola garatuko diren saio edo bilera hauek.



Saioan parte hartzen dutenak **entzuteko, ulertzeko eta onartzeko** prest egotea.



Ondo egiteko **behar den denbora hartzea**. Ezin da presaka ibili. Entzuteko eta elkartzeko gune bat da eta bere denbora behar du.




Ahalegin bat eskatzen badu ere, topaketetan inplikaturakoen parte hartzea eta konpromisoa **bideragarria dela eta merezi duela sinestea**.

Ondoren azaltzen den segida lagungarria izan daiteke **elkarlaneko harremana** lortzeko profesionalen, pertsonen eta haien senideen artean, helburu bera lortzeko: bizitza esanguratsua sustatzea.

Horretarako, hasierako bost urrats proposatzen ditugu, gero **laguntza iraunkorraren eta akordioen berrikuspenaren bidez osatu behar direnak**.

Urrats hauetako bakoitzak ekintza garrantzitsu bat du ardatz laguntza prozesuaren barruan, eta urratsak saio bakarrean edo batzuetan garatu ahal dira.



1. URRATSA. NIRE BIZITZAREN HISTORIA



“Pertsona ez da garuna; pertsona ez da gogoa, pertsona ez da jokabidea; pertsona ez da autoa, ez da motorra, ez da errepidea. Pertsona bidaia da, bere aberastasun eta konplexutasun guztia barne dela. Garuna itzaltzen denean, amaitu egiten da bidaia; horregatik, garuna elementu baliotsuena dela esan daiteke. Baina ez da pertsona, ez da bidaia”

Ramón Bayés

Taldeak arretaz eta erabateko errespetuaz hasi behar du pertsonaren bizitzaren historia entzuten, eta hori ez da kontu hutsala. Izan ere, hasiera horrek mezu argia uzten dio taldeari: **pertsona eta haren bizitza direla zaintzen abiapuntua eta helburu nagusia.**

Bizitzaren historiak **pertsonaren osotasunean kokatzen du ardatza**, eta haren orainera, oraingo beharrianetara hurbiltzeko aukera ematen digu, haren bizitza ibilbidea ezagutzuz eta ulertuz. Pertsonak izan ditzakeen arazoak, uneko narriadura, gabeziak edo beharrianak soilik kontuan hartzeak dakarren ikuspegi partzialera mugatzeko joera saihesten du. Gogorarazten digu **pertsona BIDAIA dela**. Nor izan den eta, beraz, orain ere nor den jakiteko aukera ematen digu, aintzat hartzeko gai bagara.

Komeni da **pertsonak berak kontatzea bere bizitzaren historiaren** laburpena, edo, berak ezin badu, erreferentziako profesionalak egitea.

Pertsonaren bizitzari buruz izandako elkarrizketen laburpena baino ez da informazio hori, eta hura ezagutzea eta haren bizimodura hurbiltzea du helburu. Alderdi biografiko garrantzitsuen laburpena, hura ezagutzeko eta haren arreta pertsonalizatzeko lagungarria izango zaiguna.


Ildo horretan, bi irizpide orokor nabarmendu behar dira laburpen hori egiteko:

- **Pertsonak partekatu nahi duena** soilik agertu behar da eta dokumentatzeko baimendu duena.
- **Haren nortasuna indartzen** eta arreta pertsonalizatzen lagunduko duen informazioa hautatu behar da.

Orientazio gisa, bizitzaren historia labor horretan interesgarria izan daiteke informazio biografiko hauek sartzea:

- A** Pertsonaren **identitatea** indartzeko aukera ematen duten datuak edo elementuak: jatorria, lana, familia, nondik datorren, edo bereizgarri dituen beste gai batzuk.
- B** Bizitzan izan dituen **balioak** eta bereziki mugiarazi edo motibatu duena (zaletasunak, talentuak, pasioak).
- C** Pertsonaren balioa ezagutzen lagunduko diguten **lorpen pertsonalak**.
- D** Izan dituen **lehentasunak eta errutinak**, oraindik ere ongizatea eragiten diotenak.
- E** Pertsonari beldurra, **ondoeza** edo sufrimendua eragiten diona.
- F** Haren **nortasunaren** alderdi nabarmenenak.
- G** Haren bizitzan zehar **garrantzitsuak diren eta izan diren pertsonak**.
- H** **Oroitzapen positibo** esanguratsuak, guztiok gogoratu eta gainerakoekin partekatu nahi ditugun oroitzapen atseginak baitira.
- I** **Gertaera zail batzuk**, jarduera edo gertakari batzuen aurrean izandako jokabide bereziak edo erantzun emozionalak ulertzeko lagungarri izan daitezkeenak.

Komenigarria da, halaber, laburpen hau lehen pertsonan idatzita egotea, nahiz eta pertsona horrek zuzenean horrela transmititzeko aukerarik ez izan. Horrela idazteak pertsona ikusgai bihurtzen laguntzen du, bai eta hari ahotsa ematen ere.



Erreferente nauten pertsonen bizitzaren historia entzutea “une magikoa” da, aukera ematen baitit haren bizi ibilbidea ezagutzeko eta hori partekatzeak dakarren pribilegioaz jabetzeko.

Haren balioa hautemateko begirada garatzen laguntzen dit; ulertzeko aukera ematen dit, eta, lehen unetik, adinekoaren, familiaren eta zaintza taldearen artean elkarriketa, konfiantza eta lankidetzaz sustatu nahi dituen dinamikan kokatzen nau.

Eta hori ezinbestekoa da ondo zaintzeko, eta, hala, guztiok hobeto sentitzeko.

Fraisoroko profesionalak kontatua





Haren alabekin hitz egin ondoren, hau da saioan partekatu genuen Joseren bizitzaren historiaren laburpena:

Zizurkilgoa naiz. Gipuzkoako herri bat da.

Nire gaztaroan, bizitzak eramanda, hainbat lekutan bizi nintzen. Azkenik, Andoainen amaitu nuen, non umetatik egon bainintzen enplegatuta, baserri batean, laguntzaile gisa. Han nire bizitzako pertsonarik garrantzitsuena ezagutu nuen, nire emaztea.

Ezkondu, eta bi alaba izan genituen. Igeltsero lanetan ibili naiz erretiroa hartu arte, nire familia aurrera ateratzeko. Oso harro nago horretaz. Gero, buru eta bihotz aritu nintzen baratzean.

Osasuna izan dut 90 urte bete arte; ordura arte gidatu dut. Nire familia da garrantzitsuena niretzat. Beti gaude elkarrekin.

Nire zaletasunei dagokienez, karta jokoan aritzea oso gustuko izan dut, eta, ahal izanez gero, irabaztea. Gustuko izan dut ere musika, bertsolariak eta pilota partidak ikustea.

Fraisoroko profesionalek kontatua

2. URRATSA. BESTEEK NIGAN MIRESTEN DUTENA



Bizitzaren historia partekatu ondoren, tarte bat erabili behar da **pertsonaren balioa nabarmentzeko**; horretarako, berezi eta baliotsu egiten duena nabarmendu behar da saioan parte hartzen duten guztien artean.

Galdera soil batek, **Zer miresten dugu berarengan?** adibidez, pertsonaren balioan, lorpenean, ezberdintasunean eta indarguneetan jartzen du ardatza.

Taldeko solasaldi honetan, lekua izan dezakete lorpen pertsonalek, gaitasunek, talentuek... hau da, berezi egiten duen eta ezberdintasuna adierazten duen guztia. Baita besteei egiten dien ekarpenak (familia, lagunak), eta, bereziki, bizikide duen taldeari ematen dionak ere.

Pertsonaren alderdi positibo eta miresgarriari begiratzeak dinamika berezi bat sortzen du, erdigunean jartzen baitu izaki BEREZI bat, haren BALIOAGATIK estimatzen duguna. Pertsonaren **autoestimua** modu paregabearen indartzen duen estrategia bat da.

Horrez gainera, bestearen balioa ikusteak **eraldatu egiten du pertsonen arteko harremana eta zaintza harremana**. Pertsonaren balioan jartzen badugu arreta, errazagoa da hura aintzatestea, estimatzea eta hari erabakitzeko eta ekiteko ahalmena ematea. Estimaten ez duguna, berriz, baztertu eta gutxietsi egiten dugu.



Pertsonaren balioa atzemateko denbora hartzea oso garrantzitsua da narriadura larria dutenen kasuan. «Pertsona» aintzat hartzea eta ikustea ahalbidetzen digu, eta ez soilik narriatutako gorputza, defizita edo gaixotasuna. PERTSONAREN osotasunaren ikuspegia berreskuratzen laguntzen digu, narriadura larriak ezabatzea jotzen duenean.

ZER MIRESTEN DUGU ROBERTORENGAN?



Robertoren bizi esperientzia gogorra izan da. Ezkonduta zegoen; lan finkoa zuen, baita familia eta bizimodu ona ere, endekapen gaixotasun bat diagnostikatu zitzaionean gainbehera hasi zen arte. Dena galdu zuen, eta kalean bizi izan zen urte luzez.

Gaur egun gurekin bizi da, eta miresten dugu nola izan den gai bizi duenari «buelta emateko», nola gozatzen duen egunero, eta nola eusten dion bere independentziari gaixotasunaren ondorioz mugitzeko arazoak baditu ere.

Eskertzen diogu irakatsi diguna: «bizitza honetan edozer gaindi daiteke, eta beti dago zoriontsu izateko aukera».

Fraisoroko profesionalek kontatua

3. URRATSA. NIREZAT ORAIN GARRANTZITSUA DENA



Pertsonaren bizitzaren historia ezagutu eta haren alderdi baliotsua nabarmendu ondoren, **harentzat garrantzitsua dena entzuteko edo hautemateko** unea da orain.

Aurretiaz egindako bizitzaren historiarako hurbilketa lagungarri izango zaigu pertsonarentzat orain garrantzia duten gaiak ezagutu eta argitzeko. Bizitzaren historiak haren bizitza zentzuz gidatu duten eta gidatzen duten balioak identifikatzeko aukera ematen digu.

Dementia aurreratua dutenen kasuan, senide baten edo lagun min baten kontakizunak eman ahal izango dizkigu pertsonaren bizitzaren ardatz izan diren balioen arrastoak, edo egunerokoan haren identitate pertsonala errespetatzea eta indartzea ahalbidetzen duten alderdien arrastoak, bizitza esanguratsu bat sustatzeko.

Bestalde, diziplina anitzeko ebaluazioaren bidez ere lor daiteke informazioa, pertsonari berari edo laguntza taldeari haren bizitza hobetzea ahalbidetuko duten alderdiak identifikatzen laguntzeko.


Pertsonarentzat garrantzitsua zer den jakiteak aukera emango du:

- Identifikatzeko **egunerokoan zaindu behar diren alderdiak**, bereziki egunerokoa esanguratsua izan dadin.
- Bizitza hobea aktibatzeko helburu eta ekintzen proposamena orientatuko du.



Proposamen, esku hartze edo laguntza profesionalek (programak, jarduera terapeutikoak eta abar) lotura izan beharko dute pertsonak GARRANTZITSUTZAT jotzen duenarekin.

TERESAK BERARENTZAT ORAIN ZER DEN GARRANTZITSUA PARTEKATZEN DU




Niretzat, etxe honetan, hau da garrantzitsua:

1. *Lagunduta sentitzea*
2. *Eragiten didanari buruzko informazioa izatea, horretan parte hartzea eta erabakiak hartzea*
3. *Nire eguneko errutinari eusteko aukera izatea*

Fraisoroko profesionalek kontatua

4. URRATSA. NOLA NAHI DUDAN ZAINTEA



Laugarren urrats honetan helburua da jakitea eta adostea **zein alderdik lagundu ahal duen egunerokoan bizi**za esanguratsua izaten, arreta benetan pertsonalizatu baten bidez.

Horretarako, «NOLA NAHI DUT» eta antzeko tresnak erabili ahal ditugu, pertsonaren lehenetsunak eta errutinak, gaitasunak eta egunean zehar dituen laguntza beharrak jasotzeko.

Egunerokoan, «**gauza txiki-handi**» **ugari daude** oso garrantzitsuak direnak **eguneroko bizitzak** zentzua izan dezan, pertsonen identitatea errespetatu dadin eta ongizatea sor dadin.

Erreferentziako profesionalak, pertsonarekin batera (edo familiarekin batera), aukera izango zuen pertsonak orain garrantzitsutzat jotzen dituen alderdiak jasotzeko.



Goiz jaikitzen naiz, eta lehen orduan dutxatzea gustatzen zait, ahal izanez gero lehena. Gero ohean sartzen naiz berriro, gosaltzeko ordura arte.

- *Nik bakarrik garbitu dezaket neure burua, gorputzaren atzeko aldean ezin ez, ez bainaiz iristen.*
- *Ur beroa gustatzen zait, eta dena prest egotea bainugelara noanean.*
- *Dutxan laguntzen didatenean, gustatzen zait galdetzea ea nola pasatu dudana gaua. Solasalditxo horrek erlaxatu egiten nau.*
- *Ez dut xaboi jasaten, arazoak baititut azalean. Xaboi berezia erabiltzen dut.*

Fraisoroko profesionalak kontaktua

Bileran, berriro aztertuko dugu pertsonarekin eta/edo haren senidearekin landutako proposamena. Pertsonarekin bere zaintzari buruz egindako akordio bat da.



Ebaluazio prozesuan bildutako informazioa partekatzeko eta horri buruz hitz egiteko pertsonarekin bilerak egiten ditugunetik asko aldatu da gure jarduna. Helburua ez da informazioa ematea, besterik gabe, aurrean dugunaren ikuspegitik egitea baizik. «Pertsonarekin» hitz egiten dugu, ez «pertsonari buruz».

Bera da protagonista, eta axola zaionari buruz galderak egiten dizkigu eta gugandik behar duen informazioa ematen digu. Hitz egitean, «interesatzen zaiona» hartu behar dugu aintzat, eta dituen interesak eta zentroko bizitzan nola ikusten duen entzuteko prest egon behar dugu.

Beraz, «persona bakoitza ardatz hartu» behar dugu.

Argixaoko profesionalek kontaktua

5. URRATSA. NIRE NAHI EDO ASMO PERTSONALAK



Eguneroko bizi pertsonalizatzeko eta esanguratsu bihurtzeko egunero egin beharreko ekintzak adostu ondoren, garrantzitsua da **beste urrats bat ematea: pertsonaren bizi proiektuari lotutako etorkizuneko helburu edo xede pertsonalak planteatzea**. Maiz, pertsonak amets gisa edo gauzatu nahi dituzten desio berezi gisa planteatzen dituzte helburu horiek.

Pertsonak **aurretik zituen eta baztertu zituen helburuak, ametsak eta nahiak** izan daitezke, edo **helburu berriak**, hazkunde pertsonala esperimendatuz bizitzeko, edo, besterik gabe, ongizatea sentituz bizitzeko.

Pertsonak behar besteko gaitasuna duenean bere oraingo bizi bidez hausnartzeko, eta benetan garrantzitsu ikusten duena adierazteko gai denean, gure zeregina izango da hari laguntza ematea arlo garrantzitsu horiekin **koherenteak diren helburuak identifikatzeko**, eta helburu horiek lortzeko ekintza koherenteak proposatzea. Hau da, taldeak iradokizunak eta laguntza eman ahal dizkio, berarentzat garrantzitsua denarekin lotutako helburuak eta ekintzak identifika ditzan, eta helburu horiek gauzatzeko laguntzak bilatu eta eskaini.

Narriadura kognitibo aurreratua dutenen kasuan, pertsonak gauzatu ezin izan zituen ametsak eta nahiak betetzeko helburuak planteatu ditzakegu, edo, besterik gabe, ongizate iturri berezia sor diezaioketen ekintza edo jarduera bereziak (eguneroko arretarako adostutako jarraibide eta errutinetatik kanpo). Helburu horiek pertsonaren ordezkariak —ezagutzen dutenek eta lagun egiten diotenek— identifikatuko dituzte, betiere ekimen horiek ondoezik edo arriskurik ez diotela eragiten bermatuta.

NIRE AMETSA: IRAKURTZEN ETA IDAZTEN IKASTEA



Bizitza osoa familiari eta lanari eskaini ondoren, eskolara joateko aukerarik gabe, etxe honetan nire nahi garrantzitsuenetako bat betetzen ari naiz: irakurtzen eta idazten ikastea. Nire erreferentziako profesionala ari zait laguntzen horretan.

Fraisoroko profesionalak kontatua

5.

LAGUNTZA ETA AKORDIOEN BERRIKUSPENA



Egunerokoa pertsonalizatzeko hartutako akordioak (zaintza, jarduerak, errutinak eta abar) berrikusi egin behar dira, doikuntzarik edo aldaketarik behar duten egiaztatzeko.

Erreferentziako profesionalaren ardura da adi egotea eta, beharrezkotzat joz gero, aldaketak proposatzea, pertsonarekin edo familiarekin adostuta.

Konpromisoa hartu duen taldearen laguntza behar denean norberaren nahi edo asmoak betetzeko, nahi edo asmo horien jarraipena ere egin beharko da. Garrantzitsua da egiaztatzea ea helburuak lortu ditugun, zer ekarpen egin dioten pertsonari bizi kalitatea hobetzeko.

Ez badira lortu, zergatik ez diren lortu aztertu beharko da. Baliteke lortu ezinezko nahiak izatea, baina, halaber, gerta liteke laguntza plana ez egotea ondo diseinatuta edo konpromisoetako batzuek huts egitea.

Berrikuspen horiek **helburu eta nahi berriak planteatzeko** unea izango dira, bitzta esanguratsua aktibatzen jarraitzeko. Helburua da bitzta atseginagoa sustatzen jarraitzea, zaintzen ditugun pertsonengan (baita zaintzaile eta laguntzaileengan ere) bizitzeko gogoia ematen duten nahien eta proiektuen bidez.

Akordio horien berrikuspena eta ebaluazioa estrategia kualitatibo baten ikuspegitik egin daiteke. Garrantzitsua da bai haren iritzia, baita bitzta esanguratsua ahalbidetzeko aldaketak eragiten dituzten gertuko pertsonena ere.

matia
gogoz bizi